

Nola aukeratu

domeinua

Domeinu-izena

euscommerce.eus

Domeinu-luzapena

Domeinu-izena aukeratu

Hasierako zatia da, hau da, puntuaren aurreko karaktereak. Helburuaren arabera, 3 mota bereiztu ditzakegu:

Branding

euscommerce.eus

Marka izena bezala deitzean datza. Nolabaiteko ospea duten eta marka sortzea bilatzen duten saltokientzat aukera interesgarria da.

EMD (Exact Match Domain)

poltsadenda.com

Hitz gakoekin bat egiten duten izenak dira. Webguneari buruzko informazioa adierazten die bilaketa-motorrei. Esparru espezifiko batean posizionatu eta webgunera trafikoa eraman nahi duten negozioentzat erabilgarria da.

Tokikoa

ileapaindegiabilbo.es

Tokiko publikoarengana jotzen duten saltokientzat aukera paregabea.

* Domeinu-izen mota desberdinak nahasi ahal izango dituzu, zure beharren arabera.

Domeinu-luzapena aukeratu

Globalak:

izena.com

Mundu mailako publikoari zuzendutako webgune bati buruz ari bagara, luzapen-mota hau aukeratzea egokiena da.

Honek, edozein lekutan posizionatzeko aukera emango dizu. Adibidez: **.com .org .net .shop**, besteak beste.

* Horietako edozein aukeratu dezakezu. Posizionamenduari dagokionez, ez du izango inolako ondoriorik.

Lokalak:

izena.es

Ordea, tokiko publikoari zuzenduko bazara, hauxe da aukerarik onena.

Adibidez: **.es (Espainia), .fr (Frantzia), .mx (Mexiko), .co (Kolonbia)**, besteak beste.

* Zure herrialdeari dagokion domeinu-luzapena aukeratu ezazu.

Zure domeinua aukeratzeko orduan:



1. Zure webgunearen helburua argitu ezazu.

Lehenik eta behin, webgunearekin zer lortu nahi duzun zehaztu beharko duzu.

1. Zure helburua **marka sortzea** bada, **branding** motako domeinu bat aukeratu beharko duzu.
2. Zure helburua **web-trafiko sortzea** bada, **EMD** motako domeinu bat aukeratu beharko duzu.
3. Zure helburua **tokiko zerbitzuak eta produktuak saltzea** bada, **tokiko** domeinu izen bat aukeratu beharko duzu.



2. Domeinu-izen bisuala, laburra, eta idazteko eta gogoratzeko erraza aukeratu ezazu.

Ez erabili ezohiko letrarik, hala nola q, x, y, w. Bestelako zeinuak eta zenbakiak ere ez dira gomendatzeko modukoak. Zure markaren izenak karaktere horiek baldin baditu, salbuespen bezala hartuko dugu.



3. Ez erabili marka erregistratuen izenik.

Ziurtatu zaitez zure domeinuak ez duela OEPM-n erregistratutako marken izenik. Horretarako, hurrengo estekan begiratu dezakezu: https://www.oepm.es/es/signos_distintivos/index.html



4. Egiaztatu domeinua eskuragarri dagoen eta erregistratu ezazu.

Domeinu bat eskuragarri dagoen ala ez ikusteko, hurrengo estekan egiaztatu dezakezu: <https://raiolanetworks.es/dominios>

Libre badago eta zure negozioarentzat egokiena dela uste baduzu, erregistratu ezazu!

Ordea, erabilgarri ez badago, beste domeinu-luzapen bat erabili dezakezu.



5. Azkenik, hosting-a aukeratu.

Domeinua behin aukeratuta, hosting ona aurkitzea besterik ez zaizu falta.

Hurrengo gidan, hosting on orok izan behar dituen ezaugarriak zeintzuk diren azalduko dizugu:
Nola aukeratu hosting-a